

entzutea, guda bat sortzeko.. Orregaitik izkilluak kentzea erabagi neban.

Igaroteko, Mollinuebo´tik Gorgolas´era joango giñan eta emendik Kobaron errekatxura. Gu gora joango giñan Padura´koen billa eta oneik aurkitutakoan ordezeko bi bialduko genduzan arerioen artera eta bitartean gora igongo eben baituak. Errekatxua zubitik banan-banan igaro bear zan.

Gauetz illunetan egin gendun bidea. Une baten eskatu genduzan gurarizko bi arerioengana joateko. Militar bi etorri ziran eta Urriza´gaz eta neugaz , illun-illun egoala, igon gintzazan mendira, sasi-arterik sasi-arte. Gogoia galduta be ibilli giñan. Gudarien zaratak entzuten genduzan inguruetan. Onetan argi bat ikusi gendun eta -Nor da?- esan neutsan. Berak erantzun : Padura!

14 gizon ziran sarjento bategaz eta prest egozan guri laguntzeko.

Bialdu genduzan biarteko biak matxinoen artera eta gu baituen billa joan giñan.

Ipiñi genduzan guztiak euren askatasunerako bidean eta Traslabiña´ra biurtu gintzazan eta goizaldian amaitu gendun gure gizabideko ekintza larria, gure Euzkadi´ren azkenengo lur-zatia galtzeko orduan gengoala.

Baiña gauzak zelan diran! Iru egun geroago Donosti´ko Radio Rekete´k emon eban jazokizun onen barria onelan:”Eusko Jaurlaritzak lotsaz menperatuta iges joiala, milizinu batzui esan eutsen 650 baitu Santander´era eroateko. Milizianuak ez-jakilñiak ziran eta Santander´era barik gudalekura eroan ebezan eta gura soldaduak ori ikusita, salbau egin ebezan gorrien eskutik”.

OLAZAR´tar Martin´ek

ONTASUNA

Mundua gaitzak jota zoritxarpean dago samiñen samiñez, goseak eta gudak zapaldu dabe lurra gizonen odolez.

Gizon biotzez onak bakea ta ogia nai dabez lurrian, nun zagoz ontasuna, gizartea itzita, erbeste aldian.

Aurrerapide ona biotz zuzen onagaz zatoz gizartera, ontasuna gura dau munduan gizarteak maitasun erara.

JAUNGOIKO SALBATZAILLE

Jaungoiko Salbatzaille munduan agertu zan gizon jantziagaz, maitasun biziz dator gizadiaren alde bizia urtuaz.

Biziaren Sorlea osorik eskeintzen da Golgota mendian, maitasun aundienak arritu dau lur dana odolena artian.

Esnatu zaitez lurra zabaldu ate danak giza biziari, ogi ta maitasuna egiaren bidetan emon gizonari...

ON

Ondu zaitez gizona egite onenetan bizia pozturik, zuzentasun bidea egiz da goresgarri egitez ondurik.

Gaiztakeri gogorrek bizia samintzen dau gizonen artean, lapurreta samiñek bijoaz zuregandik gizonen etxean.

Zatoz ontasun zintzo, zatoz zuzentasuna bizien lurrera, zabaldu bidezta bere poz guztiagaz gizonen artera.

ZUZEN

Perutxo zorientasu gizonen zuzen zuzena aitagaz bizi zan, beti eredu ona aitagandik arturik bizitzan guztian.

Zuzentasuna on da bakeaz alkarturik bizi izateko, giza semeak lurrez maitasuna bear dau zorionduteko.

Ta zu, gizon zuzena, ez egin atzerarik anaien artean, zuzentasun garbiak zainduko dau bizia gizonen lurrean.

PAULIN